



FORMAKUNTZA

SUTEEN

PREBENTZIO ETA

ITZALKETA

IKASTAROA



**FUNDACION SUESKOLA
GIPUZKOA FUNDAZIOA**

Upabi Aldea, 2

T. 943 088.050

20240 ORDIZIA-GIPUZKOA

F. 943.088.051

e-mail: info@sueskola.net

Web: www.sueskola.net

SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETA IKASTAROA

Helburua:

Suaren eta emergentzi eta ebakuazio planen ezagutzaren bitartez, suteen inguruko prebentzio kultura eskuratzea.

Nori zuzendua:

Enpresetako langileak, lehenengo eskuhartze lantaldeak, larrialdi egoera batetan suaren oinarriko elementuak ezagutu ditzaten eta itzalgailu eta UHEak (Ur Hartune Ekipatua) eraginkortasunez erabiltzeko gai izan daitezen.

Programa:

- **1. modulua:** (Teoriko-praktikoa): Sua
Suaren izaera, bere osagarriak eta sailkapena. Halaber, suteen jatorri nagusiak, itzaltze mekanismoak eta itzaltze eragileen sailkapenak agertzen dira.
- **2. modulua:** (Praktikoa): Sua, beroa eta kea.
Sua, beroa eta kearen kontzeptuak azaltzen dira. Su, bero eta ke egoeretarako gerturatze eta irtenarazte protokoloa egiten da.
- **3. modulua:** (Praktikoa): Itzalgailuekin itzalketa.
Itzalgailu motak eta berauen eraginkortasuna azaldu ondoren, suaren kokapen eta itzalketaren praktika egiten da, bakarka eta bikoteka.
- **4. modulua:** (Praktikoa): UHEekin itzalketa.
Ur Hartune Ekipatua (UHE) zer den eta nola erabiltzen den azaltzen da. Praktika sua non dagoen aurkitzean eta UHEarekin itzaltzean datza.
- **5. modulua:** (Teoriko-praktikoa): Sua aurreikusi.
Itzaltze sistema finko ezberdinak eta itzaltze sistema automatikoak zeintzuk diren azaltzen da. Aurkitu ditzakegun sute kasu ohikoenetan zein jokabide eredu jarraitu behar diren gogorarazten da. Amaitzeko, eraikin bat ebakutzeko jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira ondoren eszenatokitik kasu praktikoen bitartez espermentatuz.
- **6. modulua:** (Teoriko-praktikoa): Errepasoa eta ebaluaketa.
Ikastaroan zehar bizitako esperientziak azaltzeaz gain, partaiden iruzkinak eta ikastaroan ateratako ondorioak jasotzen dira eta laburpen bat egiten da.



SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETA IKASTAROA

Taldeak:

10-20 pertsona.

Iraupena:

6 ordu.

Ikastaroan zehar:

Ikastaroa burutzeko arropak banatuko dira. Erabilitako material guztia (itzalgailuak barne) Sueskolaren kontura izango da.

Aurretiko oharrak:

EZINGO DUTE IKASTAROAN PARTE HARTU :

- Haurdun dauden emakumeek.
- Arnas edo bihotz gaixotasunak dituzten pertsonak

BETAURREKOAK BAI:

Ahal izanez gero **lentillak EZ** erabili, betaurrekoak ekartzea eta erabiltzea hobe da.



SUESKOLAKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak datu pertsonalak babesteko legedia betetzen du eta Datuak Babesteko Bulegoko Erregistro Nagusian inskribatuta dago

Eskaintza honetan azaltzen diren zerbitzuak eman ahal izateko **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** Tratamenduaren Arduradunaren papera hartuko du eta bezeroaren (Fitxategiaren Erantzulea) datu pertsonalak dituzten fitxategietan sartzeko beharra dauka. Ekintza hori ez da joko datuen komunikaziotzat.

Datu hauek babesteko eta Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren 12. Kapitulua betetzeko, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Adierazitako zerbitzuak eskaintzeko baino ezingo du fitxategiaren datuetan sartu. Sarbidea Fitxategiaren Erantzuleak emandako jarraibideak betez burutuko da. **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** ezin ditu xedatutako helburuak baino ez diren helburuarekin datuak erabili.
- Izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-izaerakoak hartuk ditu, indarrean dagoen legedia eta datuen izaera eta datu horiek dituzten arriskuak kontuan hartuta.
- Datu pertsonalak ez zaizkio inori komunikatuko, zerbitzuak eskaintzeko eta legedia betetzeko beharrezkoa ez baldin bada.
- Ezinbestean bete beharko du fitxategian aurkitzen diren datu pertsonalekiko lanbide sekretua. Fitxategiaren Erantzulearekin daukan harremana edo zerbitzuak ematen bukatu ondoren ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du.
- Behin bi alderdien arteko harremana bukatu denean, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioak** tratatu dituen datu pertsonalak eta dokumentuak Fitxategiaren Erantzuleari itzuli beharko dizkio. Fitxategiaren Erantzuleak horrela adierazten badu dokumentuak ezereztu beharko ditu.
- Bezeroak emandako datuak atzitzea eska dezake, bai eta, datuak zuzentzea, ezerezte eta aurka egitea ere. Horretarako, eskaera bat bidali behar da, idatziz, **Fundación SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa**, helbide honetara: Upabi Aldea, 2, 20240 Ordizia (Gipuzkoa).